

Eibarko BERRIPAPERA

1. zenb. · 1. URTEA

Armagintzaren Museoa

2012ko uztaila

Eibarren jatorria

EIBARKO FUNDAZIOA

Atzo, 1346ko otsailaren 5a, berorren maiestatea Alfonsso XI.a erregeak, hiribildu berriaren sorrera posiblea egingo duen hiri-gutuna eman zien eibartarrei. Villanueva de San Andrés de Eibar izenarekin ezagutuko da. Ohore hau irrikaz itxaroten zuten eibartarrek, ekonomia hobetuko duen kanpo merkataritza baimenduko duelako besteak beste. Jakina da 1335.

HIRIBILDUAREN

urteko Burdinolen Foruak bultzatu zuela kanpo merkataritza, nahiz eta modu mugatuan eta abantaila gutxiagorekin izan zen.

Ospakizun handi horrek biztanle gehienak bildu ditu San Andres parrokiaren inguruan, 200 bat lagun izan dira guztira. Ego ibaiaren inguruan kokatzen diren Akondia, Aginaga, Mandiola, Gorosta eta Otaola auzoetatik etorritako baserritarrek ere hartu dute parte.



XV. mendearen lehenengo erdialdeko Eibarko San Andres herriaren berreikuntzaren planoak. Xabier Unzeta- Barrenetxeak egin eta lagatakoa. Eibarko Udal Artxiboa.

ALFONTSO XI.a ERREGEAREN ADIERAZPENAK

Erregeak bere gortetik honako hau adierazi dio Eibarko berripaper honi: "Foru hau emanaz, nik, Gaztelako erregeak, aberastasuna sustatu nahi dut nire erreinuan. Azken urteotan ikusi ahal izan da Eibarko burdinoletan totxoaren ekoizpena handitu egin dela. Dударik gabe herri honen aberastasunik handiena da hau eta honek (ura eta

egurra bezalako baliabide naturalen ustiakuntzak) ondo konpentsatzen du nekazaritza eta abeltzaintzarako daukagun eremu aproposen falta. Egun honetatik aurrera, Eibarko hiribildua harresi batez inguratu ahal izango da eta, merkataritza askatasuna izateaz gainera, ohiko lege, zerga eta azpiegitura abantailez gozatuko du hiriak".



Alfonso XI. "El Justiciero", Gaztela eta Leongo Erregea 1312tik 1350arte. Egile ezezaguna.

SAN ANDRES ELIZA IZANGO DA HIRIBILDUKO PARROKIA

San Andres elizaren inguruan egituratu da orain arte Eibarko bizimodua; hemendik aurrera hiribildu sortu berriaren parrokia izatera pasako da. Alfonsso X.a, "Jakintsua", erregeak, eliza horren patronatua Juan Lopez Ganboa jaunari sari gisa eman zion bere garaian. Eliza estiloz erromanikoa da eta gaur egungo Eibarko biztanle kopuruarentzako egokia da tamainuari dagokionean. Hiribildua handitu ahala, eliza hau eraistea aurreikusten da eta momentuko estetika estiloari jarraituz berria eraikiko da.

Etorkizunean eraikiko den esparru harresituaren barruan egongo den gurtzari eskainitako espazio bakarra bada ere, Eibarko auzo desberdinetan badaude beste eliza batzuk: Aginagako San Migel eliza, Arrateko Andre Mariaren Santutegia, Akondiako San Pedro basiliza, Aginagako Zelaarteko San Roman basiliza, Mandiolako

Santa Kurutze basiliza, Otaolako San Salvatore, Azitaingo Jasokundearen Andre Mariaren basiliza, Gorostietako Andre Mariaren basiliza edota Urkidiko San Lorentzoren basiliza. Denborarekin, beste basiliza batzuk ere eraikiko dira hiribilduaren barruan, besteak beste San Esteban Enparan, San Joan Bataiatzailea eta Santa Ines.



Eibarren marrazkia. Espainia. Kultura Ministerioa. Valladolideko "Real Chancilleria" Artxibategia. PLANOAK ETA MARRAZKIAK. 0423 desglosatuak. Juan Bautista de Urrutia eta Pedro de Aguirre hargin-maisuak egindako planoak.

Eibar erregimen zaharrean

BAKAILAOA DAKARREN ITSASONTZI BAT HELDU DA TERNUATIK.

Bakailaoz kargatutako itsasontzi bat lehorreratu zen atzo arratsaldean Debako portuan. Dakarren zama balioetsua Eibarrera ekarriko denaren esperoan gaude; horretarako lehendabizi Altzolako ibai-porturaino garraiatu beharko da ala edo gailupa izeneko ontzietan. Ekonomikoki probetxuzko bidaia izatea espero duela adierazi du barkuko kapitainak. Itsasontziko sotoak Eibarko burdinaz kargatuta itzultzeko asmoa dauka: totxoak nahiz landutako piezak eramango ditu, arma zuriak (lantzak,

pikak, ezpatak, labanak...), suzkoak (arkabuzak, fusilak, kainoiak...) edo eraikuntzarako ezinbestekoak diren iltzeak eta horrelakoak. Lehenengo Sevillatik pasatuz, Ameriketara abiatuko da bueltan. Sevillan bizi dira, izan ere, Martin Lopez Isasi, Kristobal Ibarra eta Frantzisko Iñarra eibartar bizilagun prestuak. Gure hiribilduko beste merkatariekin batera, Indietako burdinaren salerosketaren monopolioa lortu dute hauek.



Altzolako portua. Argazkia: www.guregipuzkoa.net

BESTE BI EMAKUME EIBARKO ERREGE ARMA FABRIKAN

Egun bizi dugun 1738. urte honetan, Maria Zumaraneta eta Maria Juana Ibera maisu armagile gisa hasi dira Errege Arma Fabrikan lanean. Euren senarren heriotzak bultzatu du egoera berri hau. Ez da aurreneko aldia bi emakume eibartarrek kargu hau hartzen dutena: aitzindariak Isabel Insaustieta eta Maria Azuriola izan ziren 1713. urtean. Emakume hauek guztiek Juan Etxezabal jaunaren alarguna zen Maria Argazate eibartarraren adibidea jarraitu dute. 1680. urtean etxeko sutegian mota guztietako fusilentzako kutxak egiten zituen konpainia sortu zuen emakume hark, bera zen bazkide nagusia gainera. Gora eibartar emakume ekintzaileak!

Hala eta guztiz ere, eibartar emakume gehienentzat bizimodu eroso bat lortzeko bide bakarra ezkontza izaten zen. Honen harira, eibartar emakume askok eta askok Martin Lopez de Isasiri, beste jaun ongile batzuen artean, eskertu behar diote ezkontzeko ezinbestekoa den dotea edukitzea (egurrezko kutxa eta lihozko bi maindirek osatzen dute gutxieneko dotea). XVII. mendean baliabiderik ez zuten neskek ezkontzeko aukera izan zezaten ezinbesteko dotea oparitzen zien fundazio bat sortu zuen Martin Lopez de Isasik. Horrela bermatua geratzen da gure hiribilduan belaunaldi-txandaketa.



"Los esposales" Francisco Mendieta-ren artelanaren zatia. Gipuzkoa Foru Aldundiaren bilduma.

LEINUEN ARTEKO LISKARRAK EZ DIRA BARETZEN

Eibarko hiribildura ere iritsi dira azken urteotan Gipuzkoa eta Bizkaia errausten ari diren bandoen arteko borrokak. Ganboatarren eta Oinaztarren arteko gatazka gero eta nabarmenagoa egiten ari da Eibarren. Ganboatarrak

diren Elgoibarko Olasotarren eta Oinaztarren alde dauden Eibarko Unzuetaarren liskarrak eragiten du egoera hau. Behe Erdi Aro osoan zehar luzatuko da.



Unzeta jauregia. Ojanguren fondoa. Eibarko Udal Artxiboa.

1748TIK AURRERA EMAKUMEEK DEBEKATUA DUTE ERREGE ARMA FABRIKAN LAN EGITEA

Errege Arma Fabrikan emakumeek armagin lanpostua oinordetzat hartzeko eskubidea debekatzeko eskatu dute armaginek eta neurri hau azkenik 1748. urtean onetsi da. Une honetatik aurrera, maisu armagile baten semeek bakarrik bete ahal izango dute aitaren lanpostua, baldin eta lehendik arrakastaz gainditu badute hitzartutako ikasketa-prozesua.

Negozioen munduan emakumeen eskubideak murrizten dituzten neurri hauek, ordea, ez diete eragingo Andre Maria Sortzez Garbiaren komentuko (Isasiko Komentua ere deitzen zaio) mojei. Moja hauek, emakumeak izanagatik ere, beren negozioetan jarraitu ahal izango dute: mailegu emaille gisa edota Sevillan burdinaren salerosketan.



Moja Kontzepzionisten Isasiko Komentuaren marrazkia, Eibar. Xabier Unzeta-Barrenetxeak egin eta lagatakoa. Eibarko Udai Artxiboa.

EIBARKO SEMETZAT DAUKAGUN JOSÉ LAMOOT SORALUZKO ARMEN ERREGE FABRIKAKO KONTUZAIN IZENDATU DUTE

Egun bizi dugun 1757. urtean, gure auzokide prestuenetariko bat Soraluzeko Armen Errege Fabrikako kontuzain izendapenarekin ondratu dute. Erantzukizun eta ohore handiko kargua da hau. Florencio Joseph Lamoot eta Gondesoone ez da eibartarra jaiotzez, Flandestarra baizik, baina hala ere beldurrik gabe esan genezake eibartarra dela. Eibarko alaba batekin ezkondua dago, Bibiana de Aranzaval andrearekin hain zuzen ere.

1730. urtean hasi zen armagintzan gure hiribilduko zenbait armagileek

egiten zizkioten eskariei erantzunez. Aurretik, merkataritzaren beste esparru batzuetan ziharduen lanean, gurutze kateatuen fabrikazio eta merkaturatzean, besteak beste. Negozio horrek irabazi handiak ekarri zizkion, bai berari eta baita laguntzaile kontratatu zituen armagileei ere. Horrek agerian utzi zuen gure artisauak, armez gainera beste hainbat gauza egiten maisuak zirela. Lamootek bere urratsak armen negoziora bideratu zituen Frantzisko Gorostietak eta Agustín Olañetarak jarraitu zuten kateen ofizioarekin.



José Lamooten grabatuaren zatia.

LEGEZKO ABISUA

Ameriketako urre eta zilarrezko meategiak ustiatzeko, Almaden-en (Ciudad Real) ekoizten den merkuriozko minerala ezinbestekoa da. Amerikako meategietaraino minerala garraiatzeko beharrezkoak diren botilak fabrikatzeko lehiaketa Eibarrek irabazi du. Ontzi hauek egiten interesa duten langileak eskatzeko honoko abisua jarri da udaletxeko sarreran:

En los soportales de la Casa Concejil de esta N. y L. villa de Eybar, a cosa de las quatro horas de la tarde de oy día ocho de Julio de mil setezs noventa y quatro, yo el infraescrito Essno. del Número de ella, en cumplimiento de lo q se me ordena y manda en el auto precedente, certifico y hago feé que el tenor de un edicto que se halla fijado en una de las columnas e esta dha Casa Concejil es del tenor siguiente

Los facultativos q quieran hacer postura para la formación de basijas de hierro batido por cuenta de S. M. para la conduccion de Azogue a America dandoles las quatro piezas de chapa, tapa, fondo y tornillo de q se compone cada una son tener q hacer mas que el caldeo o formación de ellas en los mismos terminos q se han ejecutado en esta vlla, ocurran al Sr. Comisionado por S. M. haciendo su propuesta por escrito, que

se les admitira y preferira el que hiciere mas ventajas en beneficio de la RI Hazda sujetandose al examen de personas intelijetes en el conceto de que se les abonara puntualmente según las que presentasen concluidas. Eybar ocho de Julio de mil setecientos noventa y quatro = Miguel de Bastera = Por su mandado: Sebastián de Anguiano.

Gremio Aroa

ARMAGILE BERRI BAT EIBARREN


Antonio Maiztegi eibartar gazteak Domingo Olave maisu forjalari eta kanoi limatzailearekin egin dituen ikasketak gainditu ditu. Urte hauetan bere maisuaren etxean bizi izan da; ohikoa den bezala, soldatarik ez diote eman baina bai bizitzeko beharrezkoa duen guztia: ohea, jakiak eta jazteko arropak besteak beste. Hemendik aurrera,

Antoniok ofiziale titulua duenez, soldata bat izango du bere lanaren ordainetan. Hala ere, gure berriemaileak esan duenez, oraindik ez du erabaki bere maisua izandakoaren lantegian geratuko den edo Soraluzeko Errege Arma Fabrikan lanean diharduen armagileren batekin hasiko den lanean. Jakina da Soraluzeko fabrikan erregearentzat

maisuz-plaza dutenek baino ezin dutela lanik egin. Antoniok lanposturik ezin du oinordetzan hartu bere aita ez delako Errege Fabrikan armagina. Urteetan Ofiziale moduan lan egin beharko du, lanpostu bat hutsik geratu arte. Orduan, bere lana kontuan hartuta aukerak izan ditzake.

BUSTINDUY FAMILIAK BERE MARKA DELA ETA AUZITEGIRA JO DU BERRIZ ERE

Beste behin, Eibarko Bustinduy armagileen familiak auzi berri batean ikusi du nahastua bere burua. Dirudienez, beste armagile batzuk leinu ezagun honek egindako lan txukunari esker irabazitako ospeaz baliatu nahi dira, Bustinduytarren marka faltsutuz. Zigiluak armagile bakoitzaren marka dira, sinadura baten funtzioa betetzen dute eta, gogoan izan behar dugu, erregeak gogor zigortuko dituela pieza batek duen armagilearen marka kopiatzen duena edo eta markaren gainean beste bat ipintzen duen edonor. Penagarria da horrelako delituen maiztasuna.



Suzko arma-markak. Armagintzaren Museoa.

XIX. mendea, gremio aroaren amaiera

ORBEA FABRIKA INAUGURATU DA (1851)

Atzo inauguratu zen Eibarren inoiz egon den arma fabrikarik handiena. 500 langiletik gora arituko dira lanean Urkizuko trenbidearen ondoan eraiki den lantegi berri honetan. Orbea anaiak dira jabeak eta Matsarian kartutxoak egiteko beste fabrika bat zabaltzeko asmoa dute.


Gure erreportariak Balentin Orbearekin hitz egin dute. Bera da fabrika bikain honen sortzailea. Hona zer esan digun:

“Abiapuntua gure familiak Urkizun zeukan errota izan da eta fabrika moderno bat

eraikitzea izan da helburua. Armategi tradizional bat baino gehiago izatea nahi dugu, erreferentziazko industrian bilakatzea alegia. Horretarako, teknikarik modernoekin lan egiten erakutsiko diguten industrialari frantsesak gonbidatzea erabaki dugu. Orbea Anaien fabrika hasi da dagoeneko bere aurreneko piezak ekoizten: Eibarren “Esmitzak” izenarekin bataiatu dituzten Smith & Wesson famatuen kopiak.



“Orbea y cia” 1910. Eibarko Udal Artxiboa.



Orbearen kartela. Bilboko Arte Ederren museoa.

IRITSI DA TRENBIDEA EIBARRERA

Armagin eta industrialarien gogo biziari esker trenak badu azkenean geltoki bat Eibarren. Merkantzia eta bidaiarien irteera eta helmuga

izango da geltoki berria. Udalak, Eibar eraberritzeko nahiari erantzunez, geltokia hirigunearekin lotzen duen “Estazio” kale berria ireki du.



Argazkia. Eibarko Udal Artxiboa.



“Gárate, Anitua y Cía” ren katalogoa. Armagintzaren Museoa.

Aurrerapauso handiak

EIBARKO FABRIKAK PRODUKTU BERRIAK EKOIZTEN HASI DIRA (1920)

Gure irakurleek ondo dakiten bezala, 1920. urtean armen salmenta librea eta hauen jabegoa debekatu egin dira. Mesede eskasa egin die errege dekretu honek pistola eta eskopeta ekoizle garrantzitsuenak diren Eibarko armagileei! Hala ere, kolpe handi honek ez ditu gure langileak kikildu; ekintzaileen hasi dira krisia gainditzeko baliogarriak izango zaizkien produktu berriak asmatzen.

Ondo informatutako iturriek esan digutenez, josteko

makina eta bizikleta izango dira Eibar krisialditik atera eta hiri industrialen arteko sailkapenaren buruan berriro kokatuko dutenak.

Dibertsifikazio ildo honen harian, produktu berri batzuen fabrikazio eta merkaturatzearen oihartzunak entzuten hasi dira: girgilak, kortxo-kentzekoak, grapagailuak, txigorgailu, kafe-makinak... Txalo bero bat eibartar asmatzaileei!



"Manufacturas El Casco" ren katalogoa. Armagintzaren Museoa.



Astaburuaga oheak. Armagintzaren Museoa.

PILOTA-PARTIDA (1904)

Gure irakurleek jakingo duten bezala, San Juan egunean estreinatuko da frontoi berria. Cantabria eta Tacoloren arteko partida jokatu da 22 tantura. Astelena izena jartzea erabaki du enpresariak, hain zuzen ere partida gehienak

egun horretan jokatzen direlako. Ezaguna da Eibarren dagoen pilota zaletasuna eta langileek sarri, igandeetan ere lan egin eta gero, atseden bat hartzen dute kirol honetaz gozatzeko.



Astelena frontoian pelota partidua. Eibarko Udal Artxiboa.

BONBARDAKETA EIBARREN (1937ko apirila)

Eibarrek bonbardaketa izugarria jasan du. Apirilaren 25ean "Gezi Beltzak" izeneko italiar aire-dibisioak gure hiri ederra errauts bihurtuta utzi du. Gure kaleetako eraikuntza ikusgarriak, harrotasunez jasotako fabrikak, eibartarren etxebizitzak, hautsa eta kea baino ez dira orain.

Berriemaile honek izua eta hondamendia baino ez ditu aurkitu bertan.

Azken orduan heldu da gure erredakziora beste berri tamalgarri bat: Gernika eta Durango bonbardatu dituzte. Eibarko herriak bertako biztanleen saminarekin bat egiten du.



Eibar 1937. San Andres elizaren inguruak. Eibarko Udal Artxiboa.

HIRU INAUGURAZIO GARRANTZITSU

Hiru dira gure herriak mende hasiera honetan ezagutu dituen inaugurazio garrantzitsuak: Espainiako lehen kooperatiba izango den “Sociedad Anónima Cooperativa Mercantil y de Producción de Armas de Fuego” ALFAren sorrera 1920. urtean;

1912. urtean langile berrien heziketaz arduratzen den Armeria Eskolaren sorrera, eta hirugarrena 1919. urtean armagileen antzinako erreibindikazio bati erantzunez, probadero ofiziala martxan jartzea.



1914 Armeria Eskola. Armeria Eskolaren argazki fondoa.



Alfako beharginak. Eibarko Udal Artxiboa.



Gerra ostea: 40 eta 50. hamarkadak

EIBARKO BIZIKLETAREN II. EDIZIOA (1953)

Mobilette-GAC taldeko Vicente Iturat Gil izan da Eibarko Bizikletaren II. edizioko irabazlea. Gure irakurleek jakingo duten bezala, Eibarko Txirrindulari Elkartek 1952an antolatuta zuen

lasterketa hau aurreneko; era berean jakina da 1927. urtean Eibarko Txirrindulari Elkartea Eulogio Garatek, G.A.C.ko ugazabak, sortu zuela. Lasterketak hasieratik izan du Eibarko bizikleta ekoizleen babes osoa.



Eibarko Bizikletaren II. edizioa. Eibarko Txirrindulari Elkarteen argazki fondoa.

DEKRETU BERRIA ARMAGINTZAN (1944)

Aro berri bat hasi da gaur Eibarko armagintza sektorean. Urte oso gogorak bizi izan ditu, eta gainera arma motzen eta lehergailuen produkzioa arautuko du orain dekretu berri honek. Helburua armen fabrikazioaren ziklo osoa enpresa bakarrera mugatzea da. Lege berri honek ezabatu egingo du, beraz, Eibarko armagintzan betidanik egin den piezakako fabrikazioa, eta Star bezalako enpresa handiei baino ez die mesederik egingo. Armagile xumeek beren jakinduria produktu berrietara bideratzen jakingo dutela espero dugu.



Star-en logotipoa. Armagintzaren Museoa.

INAUGURAZIO HANDIA (1956)

Poz handiarekin inaguratu ziren atzo arratsaldean Etxebizitza Institutu Nazionalak langileentzako eraiki dituen etxebizitzak. Errebal kaleko Cristo Obrero kooperatibak eta Carlos Larrañaga etxebizitza multzoa, Eibarrera kanpotik lanera datozen langileek pairatzen duten logela falta neurri batean konpontzeko sortuak izan dira.



Errebalako Merkatu Plaza. Kutxa Fototeka.

EIBARKO EMAKUMEA, EMAKUME EKINTZAILEA

Eibarko emakumeek betidanik hartu izan dute parte gure hiriaren hazkunde industrial eta ekonomikoan. Garai batean lortu zuten Errege fabrika maisu armagin izatea, eta gaur egun ere beraiei aitzindariak irekitako bide beretik jarraitzen dute. Asko dira kontabilitatea, mekanografia eta takigrafia menperatzen dituztenak, eta Eibarko bulegoetan lanean dihardute gehienek. Tailerretan ere zailtasun handiko lanak trebeziak eginen ikus ditzakegu, esaterako hariztaketa,

gurpilen muntaketa eta zentratzea, eta baita beste zenbait eginkizunetan ere. Maritxu Ipiña Beistegi Anaien enpresako langilea da, eta hona zer kontatzen digun: "50 emakumetik gora gaude hemen. Bizikletentzako gurpilak muntatzen zortzi orduz egiten dugu lan egunean. Lana eserita egiten dugu, hagnari belaukin eutsiz erradioak eskuz muntatzen dira. Hasieran zaila izaten da eta kontzentrazio handia eskatzen du, baina praktikarekin adituak egin gara".



Emakumeak Echasan lan egiten. Castrillo Ortuoste fondoa. Eibarko Udal Artxiboa.




Iragarkia. Armagintzaren Museoa.

60. hamarkada zoriontsua

LAMBRETTA LOCOMOCIONES ENPRESAK 3.000.000. MOTOZIKLETA EGIN DU (1963)

Oraingoan ere Eibarko industria guztion ahotan da: Lambretta motozikleta, lokomozioaren izarra, Europa osoko errepideetan dabil batera eta bestera modernotasunaren ikur gisa. 1963ko martxoan aterata da lantegitik 3.000.000. scooterra; erosotasunez mugitu ahal izateko motor baten bila egindako ikerlanen emaitza da honokoa.

Automozioaren industria boteretsuak Eibarren dauka gune nagusienetarikoa bat: Lambretta, BH, GAC, Orbea, Motobic... enpresen ziklomotor eta motozikletez gain, automobilentzako osagaiak ere egiten dira bertan: karburagailuak, segurtasun-gerrikoak, etab.



Lambretta 3.000.000 zbk. (1963). Pascual Fondoa. Eusko Jaurilaritza

BUKATU DIRA TXONTAKO V-aren LANAK (1972)

A8 Bilbo-Behobia autobideko zubiaren euskarri erraldoien jartzeak ehunka ingeniari eta begiluze bildu ditu Txonta auzoan. Injinerutza lan konplexu hau Eibarko auzo jendetsuenetako batean kokatzen da, fabrikek, tailerrek eta etxebizitzek espazioa elkarbanatzen duten auzo batean hain zuzen ere. Duen forma bereziak Eibarko paisaia aldatuko du gaurtik aurrera. Ziur gaude Txontako V-ak Eibarko izena bazter guztietan ezagun egingo duela.



Autopistaren irudia 1970ean .Argazkia: Eugenio Ortuoste.

Hijos de Valenciaga, S. A.

Fábrica de resortes



DIRECCION TELEGRAFICA: HIVAL
Apartado de Correos 31 - Teléfono 717440 (5 líneas)
EIBAR


Iragarkia. Armagintzaren Museoa.

Aldaketa garaia. 70. hamarkada

EIBARKO PRODUKTU BAT DISEINU SARIAREN IRABAZLE (1976)

Guillermo Capdevillak Eibarko El Casco markarentzat diseinatutako grapagailuak diseinuarria eskuratu du. Forma berritzaileak, ergonomia eta plastikoa bezalako material berri bat erabiltzeagatik saritu dute grapagailuaren sortzailea. Oso pozik agertu dira grapagailu honekin batera bulegoko tresneria ekoizten

dituen Olave, Soloizabal y C.^a enpresakoak: "Denbora gutxiaren buruan bulego bakoitzeko idazmahai guztietan horrelako bat egotea espero dugu. Kolore desberdinekoak direnez, edozein estilori oso erraz egokitzen zaizkio gainera". Gure erredakziorako erosi dugu bat dagoeneko. Zeren zain zaudete!



"M-20 El Casco" grapagailua, Guillermo Capdevillak diseinatua.

ERAIKIN BERRIA ALFA MICROFUSIÓN ENPRESARENTZAT (1975)

Alfa enpresak urteak daramatza hiri honen eragile izaten, eta oraintxe zabaldu berri ditu mikrofusiorako lantegiaren ateak. Miguel Ángel Lazpita arkitektoaren lana eraikin berritzailea da, egitura oso modernoa eta ausarta da.



Alfa Mikrofusio eraikina.

80. hamarkada, garai latza

KRISI EKONOMIKOAK EIBAR GOGOR ASTINDU DU

Lantegi askok, lurzoru eskasiak eta komunikabide zailtasunek behartuta, Eibartik alde egin behar izan dute. Batzuk ez dira urrutira joango, esate baterako Rodisa - Ina (Elgoibarrera), Orbea (Mallabiara), Irazola (Soraluzera), G.A.C. (Abadinora)... Beste batzuek lurzoru zabalagoen bila Gasteizera joko dute, esate baterako: Beistegi Anaia eta Miguel Carrera. Logroñoraino ere joan dira beste batzuk, Bueno Anaiek han eraiki dute

lantegi berria.

Eibarko egoera ez da batere erraza: udalerria kolpatu duen krisi ekonomikoak % 21ean kokatu du langabezia-tasa. Egoera ekonomiko zailarengatik protesta egin nahian, Precicontrolleko langileak San Andres elizan borondatez giltzaperatu dira gaur. Eibarko kaleetan manifestaldi handi bat egiteko deia zabaldu dute, ekimen honek eibartarren arteko elkartasuna piztu du.



Iragarkia. Armagintzaren Museoa.

Eibar gaur egun

TEKNOLOGIA BERRIAK LANDUKO DITUZTEN ENPRESAK INDUSTRIALDE ERAIKI BERRIAN KOKATU DIRA

Eibartarrek irtenbide bat aurkitu nahi dute udalerriak duen espazio faltarentzat. Gure enpresa eta langileen exodoa galarazi nahi da, eta era berean, hirigunea arintzearekin, hiri erosoago bat izatea da helburua.

Ibur-Erreka eta Erisono industrialde berriak ari dira eraikitzen hiriaren ingurumarian. Eibarko teknologia-gune nagusia izango da hau hemendik aurrera.

EIBARTAR ARMAGILEEK ANTZINAKO ERARA JARRAITZEN DUTE LANEAN

Harrituta geratu dira gure erreportariak Eibarko hiria bisitatu dutenean. Produktu berritzaileenak ekoizten dituzten fabrika modernoek aldamenean, oraindik ere puntzoia eta burilaren hotsak entzuten dira tailer batzuetan.

Horrela da, bai, garai batean bezala jarraitzen dute Eibarren tailer txikiek lanean. Kalitatezko ekoizpenaren aldeko apustua egin dute hauek. Kalitatearen bermea urte askotako eskarmentuak bakarrik eman dezake.



Eibarko hiriaren bista orokorra. Eibarko Udal Artxiboa.



Eibarko hiriaren bista orokorra. Eibarko Udal Artxiboa.



ARMAGINTZAREN MUSEOA MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA

Bista Eder, 10
20600 Eibar. Gipuzkoa.
Tel. 943 708 446 - 943 708 400
www.armia-eibar.net





Glosarioa

HIRIBILDUA: abantaila jakin batzuk (harresia, azoka, etab.) dituen herri edo hiria. Pribilegio hoiek izateak bereizten ditu herrixka eta auzoetatik.

GREMIOA: Ogibide bereko maisu, ofiziale eta ikasle edo apendizek osaturiko korporazioa. Ordenantza edo estatutu bereziek arautzen dute.

DOTEA: Emakumeak, ezkontzen denean, egiten duen ondasunen ekarpena. Bikoteak izango dituen zamak arintzen lagunduko du eta ezkontza desagiten denean itzuli egin beharko zaio guztia.

KANOIGILEA: Suzko armen kainoiak egiten dituen armagilea. Hiru betebeharrak nagusi egiten ditu: barrak forjatu, barruko zuloa egin eta pieza limatu. Normalean eginkizun bakoitza artisau espezializatu desberdin batek egingo ditu, baina hirurak dira kanoigileak.

SUGILTZA EDO TXISPAGILEA: Tiroa botatzeko mekanismoa egiten duen armagilea da. Mekanismo hau izan da denboran zehar aldaketarik handienak jasan dituenak. Teknika guztiz menderatzea eskatzen du ogibide honek.

KUTXAGILE EDO KAXAGINA: Egurra lantzen zuen armagilea, aurretik lehortu eta prestatutako intxaur egur zati lodietatik abiatuz egiten ditu kulatak.

APAREJEROA: Pieza osagarriak eta beste maisu armagileek egindako osagaiekin armen muntaketa egiteaz arduratzen den armagilea.

FABRIKAKO MARKA: Norberak ekoiztutako produktuei jartzen dien bereizgarria edo seinalea da. Egileak soilik erabil dezake marka hori.

FABRIKA: Objektu jakin batzuk ekoizteko, produktu jakin batzuk eskuratzeko edo energia-iturri bat modu industrialean eraldatzeko beharrezkoak diren makina, lanabes eta instalazioz hornitutako eraikina.

TAILERRA: Fabrika baino txikiagoa den lanerako tokia. Eibarren, etxebizitzaren beheko eta lehenengo solairuetan egoten ziren gehienetan.

EMPRESARIA: Langileak enplegatzen dituen industria baten jabe edo zuzendaria.

LANGILEA: Lan bat egiteagatik soldata irabazten duen pertsona.

DIBERTSIFIKAZIOA: Ekoizten diren objektuen barietate eta hobetzea. Bezeroak ugaltzea da xedea.

ESPEZIALIZAZIOA: Produkzioaren adar konkretu batean jardutea. Erabilera zehatz batean erabiliko den produktu jakina ekoiztean datza.

KOOPERATIBA: langileak bazkide diren sozietatea. Langileen beraien onerako lan egiten dute.

INDUSTRIALDEA: normalean hirien kanpoaldean kokatzen den eta industriari mugatzen zaion lur eremua. Bertan biltzen dira enpresak.

MOTOZIKLETA: bi gurpil eta zela bat edo bi izan ditzaken ibilgailu motorduna.

ZIKLOMOTORRA: abiadura handiegirik hartzen duen potentzia gutxiko motorra duen bizikleta.

BIZIKLETA: Neurri bereko bi gurpil dituen ibilgailua; bi pinoi eta kate baten bitartez pedalek atzeko gurpilari mugimendua transmititzen diote.

PATENTEA: Pertsona bati izan duen asmakariaren jabetza eta hura merkaturatzeko eskubidea ematen dizkion dokumentua.



Jarduerak

1. “Eibarko berripapera”ren azalean irakurri dezakezu San Andres eliza zela Eibarko eraikin nagusi eta adierazgarriena. Erdi Aroan elizek herri edo hiri bateko biztanleentzat bilera leku papera ere bete zezaketen.

* Gaur egun aldatu egin al da hori?

*Zure ustez gaur egun, zure herri edo hirian, ze eraikinek betetzen du eginkizun hori?

*Zertan antzematen diozu?

2. Eibarrek “hiribildu” titulua jaso zuen 1346. urtean, baina horren aurretik ere existitzen zen. “Alfontso XI.a erregearen adierazpenak” izeneko albistea irakurtzen baduzu, laster ikusiko duzu zer abantaila eskuratzen zituzten toki bateko biztanleek beraien herrixka hiribildu izendatzen zutenean.

*Zeintzuk ziren abantaila horiek?

Abantaila horiek Erreinu osoaren onurarako ematen zituen erregeak.

*Zure ustez, zer modutan izango zen Erreinu osoarentzat onuragarria Eibar hiribildu bihurtzea?

*Zein beste hiribildu ezagutzen duzu Euskal Herrian?

3. 2. orrian Eibarrera janaria zekarren itsasontzi bati buruzko albistea irakurriko duzu, eta nola gero burdinez egindako totxo, lanabes eta armak eramaten zituen bueltan.

*Zuk dituzun gauza guztietatik (jantziak, jolasak, elektra-tresnak, jakiak, etab.) zenbat ekoiztu dira zure bizilekutik gertu?

*Zenbat kilometro egin behar izan dituzte zugana heltzeko?

*Ezagutzen al duzu gauzaren bat zeure hiri edo herritik gertu egin eta beste herrialde edo kontinenteetan saltzen dena?

*Aipa al ditzakezu Eibarrekin merkataritza-harremanetan egondako hiru toki?

4. Arma bat fabrikatzeko garaian, beharrezko pieza bakoitza armagile espezializatu batek egiten zuen. Ondoren, muntaketan aditua zen beste artisau batek pieza guztiak muntatzen zituen. Maisu armagileak bere etxean edukitzen zuen tailerra, eta han bizi ziren bere aprendizak ere.

* Gaurko fabrikekin alderatuta, zer diferentzia ikusten duzu?

Gaur egun ikasketa prozesua eskola eta unibertsitateetan egiten da.

*Zer alde ikusten duzu zure ikasteko modua eta zure aiton-amonen ikasteko moduaren artean?

5. Eskopetak, errebolberrak eta pistolak lantegi handietan fabrikatzen ziren Eibarren. Gaur egun oraindik ere fabrikatzen dira eskopetak Eibarko tailerretan, eta mundu osoan dira famatuak.

*Zure ustez, zer pertzepzio du gizarteak armei buruz?

Orbeatarren fabrika Eibarko enpresa handienetako bat izan zen.

*Ba al da gaur egun zure herri edo hirian bertako biztanle gehienei lana ematen dien enpresa handiren bat?

*Ezagutzen duzu enpresa horren historia?



6. Albistean irakurri duzu armen salmenta librea debekatuta, Eibarko armagileek arriskuan ikusi zituztela euren negozioak. Produktu berrien asmatze eta ekoizpena irtenbide oso aproposa izan zen une zail hartan.

*Gaur egun antzeko gauzaren bat gerta litekeela uste duzu?

*Zure ustez, beharrezkoa al da irudimena objektu berriak diseinatu eta sortzeko?

*Gustatuko al litzaizuke objektu iraultzaileraren bat diseinatzea?

7. Albistarian Eibar-Bilbo trenbidearen argazki bat ikusi duzu. Burdinbidearen gaineko albiste bat ere irakurri duzu, eta baita autobidearen gaineko beste bat ere. Gauzak aldatu egin dira, asko dira bidaiatzeko edo merkantziak garraiatzeko erabiltzen ditugun garraiobideak.

*Aipa al zenitzake gizarteak aurrera egin ahal izateko garrantzitsuak izan diren batzuk?

*Garraiobideak aldatzen ari direla iruditzen al zaizu?

*Zer alde ikusten dituzu zure aiton-amonek eta zure gurasoek zure adina zutenean erabiltzen zituzten garraiobideen eta zuk erabiltzen dituzun garraiobideen artean?

* Bizikleta asko hasi da berriz ere erabiltzen, kutsatzen ez duen ibilgailu erabilgarria da, ezta?

8. Aldizkarian Eibarko historian zehar jaso diren gertaera garrantzitsuen arteko hiru jasotzen dira. Eibarren gertatu ziren guztiak baina bakarra dago bere jatorrizko lekuan. Ba al dakizu zertaz ari garen?

Hona hemen Armagintza Eskolan ematen ziren ikasgaien zerrenda. Ba al du zurearen antzik?

9. Gerrak bete-betean jo zuen armaginen hiria. Bonbardaketek ia osorik suntsitu zituzten Eibarko kale eta eraikinak.

*Ezagutzen al duzu antzekorik sufritu zuen beste herri edo hiririk?

10. Gerraren ondoren, Eibar berreirakitzea ezinbestekoa da. Etxebizitza premia izugarria zegoen. Lehengo etxebizitzak ez dira gaur egungoak bezalakoak;

*Ze desberdintasun ikusten dituzu?

*Gaur egun etxebizitza bat eskuratzeko arazorik ba al da?

*Zaila ote zen gerraren ostean hauetako etxebizitza bat lortzea?

11. Arazoak arazo, industriek ekoizten jarraitu behar dutela eta, produktu eta osagai desberdin askoren beharra sortzen da.

*Museoan ikusi duzun produkturen batek atentzioa deitu al dizu?

*Zer dela eta?



12. Bizikletak garrantzi handia hartuko du. Eibarko Txirrindulari Elkarteak sortu eta bizikleta lasterketak antolatzen hasiko dira.

*Bizikleta zalea zara?

*Ikusten al duzu txirrindulari lasterketarik?

*Gustatuko litzaizuke txirrindulari profesionala izatea?

13. Ikusi duzu emakumeak hainbat ofiziotan aritu direla, gizonen maila berean aritzen ziren askotan.

*Garai hartan emakumeek fabriketan lan egiten zutela jakiteak harritu al zaitu?

*Emakumeek gizonen egiten zuten lan berdina egiten zutela pentsatzen al duzu?

*Zertan ziren antzekoak, zertan desberdinak?

*Gauza bera gertatzen al da gaur egun?

*Zertan lan egin dute zure familiako emakumeek? Galdetu amari, amamari, izebei...

14. Areto honetan Lambretta bat ikusiko duzu.

*Motorra edo ziklomotorra da?

*Moderno edo museoetako gauza iruditzen zaizu?

*Gaurko motorren aldean, diferentzia handiak ikusten dituzu?

15. Objektuen diseinuak pisu handia dauka saltzeko garaian. Zenbat eta erakargarriagoa izan, orduan eta arrakasta handiagoa izan dezake merkaturatzean. Gaur egun garrantzi handiko gauza da objektuen itxura.

*Erosiko al zenuke objektu bat diseinu erakargarria duelako soilik?

*Diseinatzea gauza erraza iruditzen zaizu?

16. Eibarko enpresek, garai jakin batean, beste leku batzuetara aldegin zuten, Bizkaia edo Arabara esate baterako. Gaur egun maiz gertatzen da hori.

*Zure ustez, zergatik gertatzen da?

*Zuk dakizula, zein herrialdeetara joaten dira enpresak?

*Zer deritzozu enpresa eredu honi buruz?

*Zure herrian halakorik gertatu da?

17. 80. hamarkada krisi-garaia izan zen, eta enpresa eta langileei eragin zien. Langabeziak gora egin zuen eta egoera zaila izan zen hura. Gaur egun antzeko egoera bizi dugu.

*Non sumatzen duzu krisian gaudela?

18. Industriaren ezarpen ereduak aldatzen ari da. Fabrikak hirigunetik kanpoaldera eramaten dituzte.

*Ba al da zure hirian industrialderen bat?

*Zure ustez, zer berezitasun du industrialde batek?



Bista Eder, 10
20600 Eibar. Gipuzkoa.
Tel. 943 708 446 - 943 708 400
www.armia-eibar.net



Eibarko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA
KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO
DEPARTAMENTO DE CULTURA